

IV. edizioa oinarritzko lanbide heziketako ikasleei zabaldu zaie, eta LHko 7 ikastetxetako 16 ikasgela atxiki dira

## **Kutxabanken ‘Finantzak Bizitzeko’ programak parte hartze errekorraz itxi du ikasturtea, 2.333 partaide izan ditu eta**

- **58 ikastetxetako 118 ikasgelak hartu dute parte orotara, gehienak DBHko 4. mailakoak. ‘Ekonomia’ eta ‘Ekintzailtza’ ikasgaietan sartzen da jokoa**
- **Hainbat hezkuntza dinamizatzailek eta Kutxabankeko adituk emandako formazioa honek asetasun-maila altuari eutsi dio, eta hurrengo ikasturtean ere hazten jarraituko duela aurreikusi da**

**2019ko ekainak 13.** ‘Finantzak Bizitzeko’ programaren laugarren edizioan, 2018ko irailetik garatzen ari da programa hori, **2.333 ikaslek** hartu dute parte eta DBHko eta oinarritzko lanbide heziketako **118 ikasgelatara** iritsi da, Euskal Autonomia Erkidegoko **58 ikastetxe** publikotan eta itunpekotan.

Amaitzeaz dagoen ikasturtearen berrikuntzetako bat oinarritzko lanbide heziketa ikasten ari diren neska-mutilen parte hartzea izan duela da. LHko **7 ikastetxetako 16 ikasgela** atxiki dira prestakuntza ekimen horretara, orain arteko partaideak DBHko ikastetxe publikoak eta itunpekoak baino izan ez badira ere.

Lortu diren datu onak eta asetasun-inkestetan islatu diren balorazio positiboak direla eta, ‘Finantzak Bizitzeko’ programaren bosgarren edizioak joko didaktiko honetan parte hartzen dutenen kopuruan gora egiten jarraituko duela aurreikusi da; izan ere, **7.100 ikaslek** baino gehiagok hartu dute parte dagoeneko. Programa abiarazi zenetik gero eta udalerrri gehiagotara zabaltzen joan dela esan behar da.

‘Finantzak Bizitzeko’ programaren helburua honakoa da, gazteek finantza-arloko oinarritzko kontzeptuak uler ditzatela, hartara, helduarorako bidean ezinbestekoak izango zaizkien hainbat gaitasun eta ezaguera hartuko dituzte. Hortaz, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 4. mailako ikasgeletan, Ekonomia eta Ekintzailtza ikasgaietarako. Beste ikastetxe batzuek zeharkako eran erabiltzen dute ‘Finantzak Bizitzeko’, ikasgai batean baino gehiagotan, esaterako matematikak eta gizarte, ekonomia eta informatika edo teknologia.

## Saio ludiko-formatiboen % 42 euskaraz eman dira

Programa **simulazio joko oso parte hartzailean** oinarritzen da eta, joko horren bidez, oinarritzko finantza-trebetasunak hartzen dira eta hezkuntza-gaitasunak lantzen dira, esaterako matematika, teknologia digitalak edo hizkuntza-komunikazioa. Laugarren edizioan, **talde gehienek jokia gaztelaniaz garatzea** hautatu dute, ikasgelen % **57,6k**, euskaraz garatzea aukeratu duten % 42,3ren aldean.

‘Finantzak Bizitzeko’ programak ikasgelan lan egiteko material didaktiko guztia ematen die ikastetxeei eta zenbait **hezkuntza dinamizatzaileen** eta **Kutxabankeko adituren** parte hartzea ere dakar (lanean diharduten bulegoetako zuzendari gazteak gehienak). Azken horiek programaren itxiera jardunaldira joaten dira, **zalantzak argitzeko**, **arazo bakoitzaren irtenbide** onenak argudiatzeko eta ekimenaren helburuak bete diren baloratzeko helburuz.

## Simulazio joko bat

‘Finantzak Bizitzeko’ programa ikastetxeetan bertan garatzen da, formatu berritzaile baten bidez: simulazio joko gidatua eta parte hartzailea, ikasleei eta irakasleei finantza arloko gaitasunak eta trebetasunak lantzea errazten diena. Binaka edo gehienez lau pertsonaz osatutako taldetan, partaideek pertsonaia bat aukeratu dute ausaz (langabetua, ikaslea, enpresaburu txikia, merkataria, e.a.) eta helburu bat eta helburu hori lortzeko gehieneko epealdia daraman txartel bat ere bai.

Premisa bi horiek ezagututa, eta ordubeteko iraupena duten hiru edo lau saiotan, hileko diru sarrera eta irteeren zerrenda bat egin beharko dute, aldagai guztiak aintzat hartuta (diru-sarrerak, derrigorrezko gastu finkoak, beharrezko gastu aldakorak eta premiarik gabeko gastuak), eman zaien helmugara iristeko. Irakasleek jokia dinamizatzen dute, jokoaren ibilbidea aldatzen duten aldagaien txartel batzuk erabiliz, zailtasun maila biren inguruan.

Jokoa amaierako azalpen-saioan amaitzen da, eta saio horretan Bankuko adituek argi geratu ez diren bizitzeko finantzen kontzeptuak doituko dituzte. Kutxabanke informaziorako telefono linea lagungarri etengabea ere jartzen du parte hartzen duten ikastetxeen eskura, baita kontsultarako eta programaren jarraipena egiteko webgunea ere, erakundearen web-orrietako ‘Familiak’ atalaren barruan kokatua eta <http://www.finanzasparalavida.com/> helbidean eskura dagoena.